

Wifi bidezko musika

MUSIKA DIGITALAREN BILAKAERA GELDIEZINA DA, ETA ORAIN, ORDENAGAILUKO MUSIKA EDOZEIN LEKUTAN ENTZUTEKO MODUA AURKITU DUTE, TRESNAK LEKUZ ALDATU GABE ETA INGURUA KABLEZ JOSI GABE



Apalategiek arindu ederra hartu dute bilakaera digitalari esker. Garai batean, binilozko diskoz gainezka egoten ziren; gero, disko konpaktuek handitik txikirako jauzia egin zuten, eta, egun, hutsik ez edukitze-agatik edo, gehienez ere, ordenagailurako osagarri batzuk gordeko ditu, entzungailu batzuk, kanpo-diskoren bat... Ordenagailuaren disko gogorra da apalategi gaur egun, eta hantxe gordetzen dugu musika (milaka abesti). Saretik zuzenean ekartzen dira kantutak, ordenagailuko albumetan gordetzen dira, eta erabiltzaileak nahi duenean entzun-

go ditu. Dena asmatua dagoela dirudi, baina ez. Erronka berriak ere sortu dira.

Nola lor liteke ordenagailuan gorde dugun musika egongelako bozgorailuetatik entzutea, etxea kableztatu gabe? Hau da, nola atera musika ordenagailutik? Horra erronka handi bat. Bada besterik ere, ordea. Nola egin egongelako bozgorailuetan entzuten denak kalitate ona eduki dezan? (Disko konpaktuak ematen duen bestekoa). Bai erronka bati eta bai besteari erantzuteko, gune digitaletik HI-FI kateetara iristeko bidea aurkitu behar da, eta horretan ari dira.

Wifi konexioa edukitzea, ia ezinbestekoa

Kableen menpe ibili nahi ez duenak eta musika kalitate gutxieneko batez entzun nahi duenak irtenbide bakarra dauka: hariak moztea (sistema harigabeak erabiltzea, alegia). Sistema horietan, hala ere, aukera bat baino gehiago daude, batzuk besteak baino hobekak.

Sail batean, etxeko wifi sareak erabiltzen dituzten sistemak daude. Sare horiek bi abantaila, behintzat, badituzte: batetik, banda zabalera ona dute, eta musika uhinen bidez transmititzeko gai dira, soinu-fluxurik galdu gabe; bestetik, fluxu hori ongi babesten dute beste etxetresna batzuen interferentzietatik (mikrouhin labeek eta telefono harigabeek, esaterako, antzeko frekuen-

tziarekin igortzen dituzte uhinak). Sistema horiek erabili ahal izateko, ADSL konexio eduki beharra dago, wifi antenaduna; horrela soilik lortuko dugu etxeko txoko guztiak harrapatuko dituen sare bat sortzea, edo, behintzat, uhinak guk nahi dugun lekuraino iristea. Sare indartsu bat edukiz gero, bada modua ordenagailuko musika nonahi entzuteko, baina sakela ere indartsu eduki behar da, irtenbideak ez dira-eta merkeak. Hala ere, merkatuan badira zenbait sistema modu on samarrean eskura litezkeenak; Apple etxearan AirPort Express delakoa, esaterako.

Tresna hori korrante elektrikoari lotzen zaio batetik, eta bozgorailuei bestetik, audio kable baten bidez ('minijack' bat izan daiteke edo kable optiko bat). AirPort Express delakoak wifi seinalea harrapatzen du, eta seinale horren bidez, erabiltzaileak ordenagailuan iTunes programarekin abiarazi dituen abestiak iristen zaizkio. Behin iritsita, bozgorailuetara pasatzen ditu. 89 euro balio du tresna horrek.

Sistema harigabeetan, bada beste aukera bat ere: wifi bozgorailuak. Etxeko Internet konexioaz baliatzen dira ordenagailuko soinua jasotzeko. Antena bat erabiltzen dute seinalea kontzentratu eta interferentziak saihesteko, eta eraginkorrek dira, baina garestiak ere bai. Beharrezko tresna guztiak (antena, bozgorailuak eta baxu-kaxa) 2.000 euro baino gehiago balio lezakete.

Tresna eramangarrien aukerak

MP3 entzungailu bat edukiz gero, iPod Touch motakoa, adibidez, edo iPhone telefono bat, modua izango dugu wifi sarera konektatzeko, eta ordenagailuko musika entzun ahal izango dugu, kableak erabili beharrik gabe. Simplify Media programak egiten du zubi lana Internet bidez entzungailu eramangarriaren eta disko gogorraren artean, eta horri esker, ordenagailuko musika guztia entzun daiteke iPod-ean streaming bidez (datu fluxua).

Tresnen artean konexio hori egin ondoren, aski da iPod-aren audio irteera musika kateari konektatzea; ordenagailuko musika entzungo dugu bozgorailuetatik. Sistema honek badu desabantaila bat, ordea: iPod-etik soilik abiarazi daitezke abestiak eta ez ordenagailutik; ondorioz, abesti zerrenda edo diskoa aldatu nahi bada, altxatu egin behar da aldiro.

Internet konexiorik ez duten etxeetan, beste sistema batzuk erabili daitezke musika haririk gabe transmititzeko. Irrati frekuentzia da horietako bat. Ordenagailuaren audio irteerari konektatzen zaizkio, eta irrati uhinen bidez bidaltzen dute soinua; kate estereofonikoari lotzen zaion hargailu batek hartzen ditu uhin horiek, eta musika entzuten da. Hargailu hori kanal laguntzaileak pasatzen da edo aurrez finkatuta dauden irrati kana-

letatik bestela. Kateak diala edukitzea da baldintza bakarra.

Eragozpen bat ere badu sistema horrek. Interferentzia asko izaten ditu, bai etxetresna elektrikoek eraginak bai irrati komertzialek sortuak, eta beti ezin izaten da ongi entzun. Interferentzia horiek saihesteko, hala ere, soinua Bluetooth protokoloaren bidez transmititzen duten bozgorailuak erabili litezke. Merkatuan aurki litezkeen tresnek, ordea, ez dute ongi erantzuten bi metrotik gorako tartetean.

Kablea da onena

Egun erabili litezkeen sistema harigabeek ez dute lortuko kable bidezko soinu transmisioa hobetzerik. Beraz, gela guztietara kableak eramatea da irtenbiderik onena, bozgorailu bidez guztietan entzun dadin ordenagailuan abiarazi dena edo musika entzungailu nagusian jarria dagoena. Hori egiteko, ordea, denbora eta diru asko behar da. Etxean berrikuntza lanak egin eta kable elektrikoak ere berritu nahi dituenak aukera ona izan lezake audio sare berria jartzeko. Aukera hori ere ez da merkea, jakina (% 20 handitu lezake aurrekontu guztia). //